

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

NEKAZARITZA SAILA

6859

89/2008 FORU DEKRETUA, urriaren 14ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onddo, landare, lore eta basa-fruituen aprobetxamendua arautzen da.

Arabako mendietan onddoak eta basoko fruituak, historian zehar, modu librean batu dira eta Arabako Lurralde Historikoan tradizio handikoa da horiek batzea. Hala ere, azken urteotan, produktu hauetako batzuek merkataritza arloan lortu duten balio handia, Arabako mendi askotan dauden biltzaile kopuru handia, gehiegi batzuek eragin dezakeen baliabidearen biziraupenari buruzko arriskuak eta aprobetxamendu horren eta beste erabilera eta baso baliabideen aprobetxamenduen arteko harmonia direla-eta, gure mendien eta horien balio naturalen babes egokiarekin batera, egokitzat jotzen da erregelamendu bat onestea, lur publikoetan onddo, landare eta basoko fruituen aprobetxamendua arautzeko eta antolatzeko.

Xede horrekin, Mendi Zerbitzuak mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 51 eta 52. artikuluetako edukia batu eta garatzen duen erregelamenduari proposamena aurkeztu du eta, horretan, Arabako mendi publikoentzako marko orokorra ezartzen du. Horrek erreferentzia bat du, mendien jabeak diren Toki Erakundeek, egokitzat jotzen badute, beren ondorengo arauak edo ordenantzak ezar ditzaten oinarritzko agindu hauen garapenean.

Proiektua beren mendietan fruitu, onddo, landare eta lore bilketa nabarmena duten udalekin kontsultatu da. Baita Arabako Kontzejuen Elkartearekin, Mikologi elkarteekin eta Arabako Natura Institutuarekin ere. Azkenik, Aholku Batzordearen irizpena jaso du.

Horrekin, mendiei buruzko martxoaren 26an emandako 11/2007 Foru Arauaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritako agindua betetzen da. Horren lehenengo atal honakoa dakar: "Mendien arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiaren Sailak erreferentziako ordenantza bat idatziko du, Toki Erakunde jabeek onddoen, loreen eta baso-fruituen aprobetxamendua arautu eta antola ditzaten".

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilera gaia aztertu eta gero, ondokoa

XEDATU DUT:

Onddoen, landareen, loreen eta basoko fruituen aprobetxamendua arautzeko eta antolatzeko Erregelamendua onartzea, ondorengoaren arabera:

1. artikulua.- Definizioak.

Erregelamendu honen eraginetarako:

Onddoak klorofila gabeko landarea da eta materia organikoaz elikatzen da. Ugaltze-funtzioa edo funtzio kontserbadorea izan dezaketen elementu zilindrikoek (hifak) osatzen duten harizpiko gorputz begetatiboa (mizelioa) du. Onddoek landare talde oso zabala osatzen dute, eta ugalketa estruktural edo sukaldaritarako karpoforoak garatzen dituzten zenbait motek biltzeko interesa dute. Azken horiek perretxiko izen arruntaz ezagutzen dira.

Eskukada (edo sorta) pertsona heldu baten eskuak har dezakeen sorta da.

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

6859

DECRETO FORAL 89/2008, del Consejo de Diputados de 14 de octubre, que regula la ordenación de los aprovechamientos de hongos, plantas, flores y frutos silvestres.

La recogida de hongos y de frutos silvestres en los montes alaveses se ha venido realizando históricamente de forma libre y goza de una gran tradición en amplias zonas del Territorio Histórico de Álava. Sin embargo en los últimos años un valor comercial creciente de algunos de estos productos, la elevada afluencia de personas recolectoras en muchos montes de Álava, los riesgos sobre la pervivencia del recurso derivados de la excesiva presión recolectora y la necesaria armonía entre este aprovechamiento y otros usos y aprovechamientos de los recursos forestales, así como con la adecuada protección de nuestros montes y sus valores naturales, aconsejan la elaboración y aprobación de un Reglamento para la regulación y ordenación de los aprovechamientos de hongos, plantas, flores y de frutos silvestres en terrenos públicos.

Con tal objeto el Servicio de Montes eleva propuesta de aprobación del proyecto de reglamento que recoge y desarrolla el contenido de los artículos 51 y 52 de la Norma Foral de Montes 11/2007 y establece un marco general en la materia para los montes públicos de Álava, que constituye una referencia para que las Entidades Locales propietarias de montes establezcan, si lo consideran conveniente, sus propias regulaciones u ordenanzas posteriores en el desarrollo de estas prescripciones básicas.

El proyecto ha sido consultado con los Ayuntamientos cuyos montes son objeto de recogida significativa de frutos, hongos, plantas y flores, la Asociación de Concejos de Álava y Asociaciones Micológicas e Instituto Alavés de la Naturaleza, y posteriormente ha sido sometido a dictamen de la Comisión Consultiva.

Con ello se cumple el mandato recogido en la Disposición Adicional Tercera de la Norma Foral de Montes 11/2007 de 26 de marzo, que en su apartado primero indica que "El Departamento competente en materia de montes de la Diputación Foral elaborará una ordenanza de referencia para que las Entidades Locales propietarias puedan regular y ordenar los aprovechamientos de frutos silvestres, hongos, plantas y flores".

En su virtud, a propuesta de la Diputada del Departamento de Agricultura, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

DISPONGO:

Aprobar el Reglamento para la regulación y ordenación de los aprovechamientos de hongos, plantas, flores y frutos silvestres, con arreglo a lo siguiente:

Artículo 1. Definiciones.

A los efectos de este Reglamento:

Hongo es un vegetal sin clorofila que se alimenta de materia orgánica y que presenta un cuerpo vegetativo filamentosos (micelio) construido por elementos cilíndricos (hifas) que pueden presentar estructuras de función reproductora o conservadora. Los hongos constituyen un grupo extensísimo de vegetales, dentro de los cuales tienen interés recolector algunos Órdenes que desarrollan estructuras reproductoras o carpóforos de interés culinario, conocidos con el nombre vulgar de setas.

Manojo es un hacecillo de cosas que se puede coger con una mano de persona adulta.

Aprobetxamendua basa-fruitu, onddo, landare eta loreen eskuzko bilketa da.

2. artikulua.- Baimenik behar ez duten aprobetxamenduak.

1.- Baso-fruituen aprobetxamendua librea izango da, pertsona eta egun bakoitzeko 2 kg., gehienez ere, aprobetxamendu hori gorde edo mugarrizten duten baso lursailetan izan ezik.

2.- Onddoen aprobetxamendua librea izango da, pertsona eta egun bakoitzeko 2 kg., gehienez ere, mendiaren Erakunde titularrak, dagokion berezko ordenantzaren bidez, aprobetxamendu hori gorde edo mugarrizten dituen baso lursailetan izan ezik.

Dena den, baliabidea babesteko asmoz, Nekazaritza Sailak urtero mugatu ahalko ditu aprobetxamendu hori egiteko asteko egunak.

3.- Onddoak modu librean batu ahalko dira, 3 unitate oso, gehienez ere. Horiek batzeko asmoa zientzia-arlorako, identifikatzeko, biltzeko edo beste eginkizun batzuetarako izango da, sukaldaritzarako ez, ordea.

4.- Belar eta lore landareen aprobetxamendua apaingarrirako, sukaldaritzarako edo medikuntza arlorako librea izango da, betiere, gure mendietako espezie arruntak badira eta babestutako edo katalogatutako espezieak ez badira. Gehienez ere, sorta bat hartu ahalko da pertsona eta egun bakoitzeko sortetan batzen diren espezieen kasuan eta ontziren batean batzen diren landare edo loren kasuan, 200 gramoko pisua berdean, pertsona eta egun bakoitzeko.

3. artikulua.- Baimena behar duten aprobetxamenduak.

1- Boilurren aprobetxamendua ez da librea eta mendiaren jabea den erakundearen baimenaren esku geratzen da.

2- Zuhaitz landareen aprobetxamendua ez da librea izango eta mendiaren jabe den Erakundearen eta Foru Aldundiaren baimenak beharko ditu.

3- Txilarren, ezpelen edo beste zurezko landare batzuen bilketa eta lore landareei, baso-fruituei edo onddoei buruzko ordenantza honetan aipatutako mugak gaintzen dituen aprobetxamendua, mugarritu gabeko lursailetan, industria edo merkataritza arlokatzat joko da eta Erakunde titularraren baimena beharko du eta, horrez gain, Arabako Foru Aldundiarena, katalogatutako mendien kasuan.

4- Aprobetxamendu meliferoa ez da librea izango eta baimena beharko du. Katalogatutako mendien kasuan, mendiaren jabea den Erakundearen aprobetxamenduen urteroko planean sartuko da, ahalmen eta ekonomi baldintzak ezartzeko.

Inoiz iraunkorra izango ez den lurralde okupazioari dagokionez, erlauntzak mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 24. artikuluan xedatutakoari jarraiki instalatuko dira. Instalazio horrek erlezaintzako bidezko araudia beteko du, eta ahalik eta egokien kokatu eta seinaleztatuko da.

5- Baimena behar duten aprobetxamendu guztiak Erakunde Titularraren aprobetxamenduen urteroko planean sartuko dira, beren ahalmen eta ekonomi baldintzekin, mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 36. artikuluan xedatutakoaren arabera. Zenbatekoaren % 15, gutxienez, 11/2007 Foru Arauak arautzen duen hobekuntza fondorako erabiliko da.

4. artikulua.- Erregelamenduaren garapena eta aprobetxamenduen mugatzea.

1- Mendien jabe diren Erakundeek Erregelamendu hau garatuz, baso-fruituen eta onddoen aprobetxamendurako beren ordenantzak onartu ahalko dituzte. Horretarako, beren aprobetxamendua murriztu edo mugatu beharko dute eta, halaber, mikologiaren aprobetxamenduaren planak sartu beharko dituzte, horiek izanez gero.

2- Mendien jabeak diren Erakundeek garatutako Ordenantzak, hasieran onetsi ondoren, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailera bidaliko dira, txostena egiteko. Bertan, mendiei buruzko Foru Arauak mendiei eta baso lurrei esleitzen dien iraunkortasun eta funtzio anitzeko printzipioekin bat ote datorren aztertuko da, eta egiaztatuko da propo-

Aprovechamiento: es la recogida manual de frutos silvestres, hongos, plantas y flores.

Artículo 2. Aprovechamientos no sometidos a autorización.

1.- El aprovechamiento de frutos silvestres será libre hasta la cantidad de 2 kg./persona y día, salvo en los terrenos forestales en que se reserve o acote este aprovechamiento.

2.- El aprovechamiento de hongos será libre hasta la cantidad de 2kg por persona y día, salvo en los terrenos forestales en que la Entidad titular del monte se reserve o acote este aprovechamiento mediante la ordenanza propia correspondiente.

No obstante y a fin de proteger el recurso, el Departamento de Agricultura podrá limitar anualmente los días de la semana en que dicho aprovechamiento pueda realizarse.

3.- La recogida libre de hongos sin interés culinario, con fines científicos, de identificación, de colección u otros, se limitará a 3 unidades representativas enteras.

4- El aprovechamiento para uso decorativo, culinario o medicinal de plantas herbáceas y flores, siempre que se trate de especies comunes de nuestros montes, y no cuenten con estatus de especies protegidas o catalogadas, será libre, con el límite de un manojo por persona y día, para el caso de especies que se recolectan en ramo, y de 200 gramos de peso en verde por persona y día para plantas o flores que se recolecten en algún tipo de recipiente.

Artículo 3. Aprovechamientos sometidos a autorización.

1- El aprovechamiento de trufas no es libre y queda sujeto a la autorización de la Entidad propietaria del monte.

2- El aprovechamiento de plantas arbóreas no será libre y estará sujeto a autorización de la Entidad propietaria del monte y de la Diputación Foral.

3- La recolección de brezos, bojés u otras plantas leñosas, así como el aprovechamiento por encima de los límites señalados en este Reglamento de plantas herbáceas de flores, de frutos silvestres o de hongos, en terrenos no acotados, se considerará de carácter industrial o comercial y requerirá autorización expresa de la Entidad titular, y además, de la Diputación Foral de Álava en el caso de montes catalogados.

4- El aprovechamiento melífero no será libre y estará sujeto a autorización. En el caso de los montes catalogados se incluirá en el plan anual de aprovechamientos de la Entidad propietaria del monte para la fijación de sus condiciones facultativas y económicas.

La instalación de colmenas se sujetará en cuanto a la ocupación territorial, que nunca tendrá carácter permanente, a lo dispuesto en el artículo 24 de la Norma Foral de Montes 11/2007. Dicha instalación cumplirá con la reglamentación apícola pertinente y se dispondrá y señalará de la manera más adecuada.

5- Todos los aprovechamientos sujetos a autorización se incluirán en el plan anual de aprovechamientos de la Entidad Titular, con sus condiciones facultativas y económicas, según lo dispuesto en el artículo 36 de la Norma Foral de Montes 11/2007, y de su importe se destinará un 15% como mínimo al fondo de mejoras regulado por la Norma Foral 11/2007.

Artículo 4. Desarrollo del Reglamento y acotados de aprovechamientos.

1- Las Entidades propietarias de los montes podrán, en desarrollo de este Reglamento, aprobar sus propias ordenanzas locales de aprovechamiento de frutos silvestres y hongos, plantas y flores, restringiendo o acotando su aprovechamiento e incorporando sus planes de aprovechamiento micológico, en el caso de que dispusieran de los mismos.

2- Las Ordenanzas propias, elaboradas por las Entidades propietarias de los montes, tras su aprobación inicial, serán remitidas al Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava para su informe, en el que se analizará su compatibilidad con el principio de sostenibilidad y la multifuncionalidad que la Norma Foral de Montes

satutako araudiak ez duela erregelamendu orokorraren edukia kontrako esaten.

Araudiak erabilera publikoko mendi katalogatuak helburu izanez gero, txostena nahitaezkoa eta loteslea izango da.

Aurreko tramitea egin ondoren, Erakundeak Ordenantza behin betiko onetsiko du eta ALHAOn argitaratuko du.

3- Fruitu eta onddoen bilketa gorde edo mugatuta duten herri lurretan zein pribatuetan, seinaleztapen egokia jarri beharko da.

4- Arabako Foru Aldundia Tokiko Erakundeekin lankidetzan arituko da, Tokiko Erakundeek onetsitako ordenantzak betetzen direla bermatzen duen seinaleztapenean eta kontrolean.

5. artikulua.- Aprobetxamendua Natur Gune Babestuetan.

1- Natur Gune Babestuetan dauden mendi publikoetan onddoen, landareen, loreen eta baso-fruituen aprobetxamendua, erregelamenduan xedatutakoaren arabera arautzeaz gain, dagozkien baliabide naturalen antolamendu planetan eta erabilera eta kudeaketa arautzeko planetan horri buruz dauden berariazko aginduen arabera ere arautuko da.

6. artikulua- Onddoen aprobetxamendurako berariazko baldintzak.

1.- Perretxikoak kokatzeko, debekatuta dago lurra nahastea -eskuz edo arrastelu, igitai edo beste tresna batzuen bidez izan arren, horrek landare-estalkiari eragingo badio.

2.- Bilketan aiztoa edo labana besterik ezingo da erabili; horrenbestez, debekatuta dago perretxikoak eraztea.

3.- Bilduko diren aleek txapela zabal-zabalik izan beharko dute, beraz, debekatuta dago onddoak garatzen ari diren lehenengo faseetan batzea.

4.- Lekuan bertan utziko dira galduta, apurtuta edo nahastuta dauden edo biltzekoak ez diren aleak, horiek hondatu gabe.

5.- Bilketa perretxikoak aireztatzea eta esporak kanpoaldera jaustea ahalbidetzen duten saskietan edo ontzietan egingo da; horrenbestez, berariaz debekatuta dago plastikozko poltsak, motxilak edo antzekoak erabiltzea horretarako.

6.-Berariaz debekatuta dago bilketarako ez den edozein ale apurtu edo hondatzea, aleren bat hondatu dela ez bada; azken horiek, identifikazio taxonomiko egokia egiteko beharrezkoak direnak.

7- Debekatuta dago gaez batzea, ilunabarretik eguzkia irten arte.

7. artikulua.- Zigor araubidea.

1.- Administrazioak ikuskaritzak eta azterketak egin ahalko ditu, aprobetxamendua egiten den bitartean zein behin hori amaituta, erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.

2.- Erregelamendu honetan eta hurrengoetan xedatutakoaren kontra egindako arau-hausteei, mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren VII. Tituluan aurreikusitako zigor araubidea aplikatuko zaie.

3. Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan batuta dauden landareak biltzeak edo hondatzeak Euskal Herriko Natura Babesteari buruzko ekainaren 20ko 16/94 Legearen 76. artikuluan ezarritako arau-haustea egin izana dakar.

Azken xedapena

Erregelamendu honek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko urriaren 14an.- Diputatu nagusiordea, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.- Nekazaritza Saileko foru diputatua, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.- Nekazaritza zuzendaria, JOSÉ MARÍA GARCÍA TABERNERO.

atribuye a los montes y suelos forestales, y comprobará que la regulación propuesta no contradice el contenido de este Reglamento.

En el caso de que la regulación tenga por objeto montes catalogados de utilidad pública el informe será preceptivo y vinculante.

Completado el trámite anterior, la Entidad procederá a la aprobación definitiva de la Ordenanza local y a su publicación en el BOTHA.

3- En aquellos terrenos, tanto públicos como privados, en los que la recolección de frutos y hongos esté reservada o acotada deberá colocarse la señalización oportuna.

4- La Diputación Foral de Álava colaborará con las Entidades Locales en la señalización y control que garantice el cumplimiento de las ordenanzas aprobadas por las Entidades Locales.

Artículo 5. Aprovechamientos en Espacios Naturales Protegidos.

1. En los montes públicos incluidos dentro de Espacios Naturales Protegidos el aprovechamiento de hongos, plantas, flores y de frutos silvestres se regirá, además de por lo dispuesto en este Reglamento, por las prescripciones específicas que sobre esta materia se contengan en sus correspondientes Planes de Ordenación de Recursos Naturales y Planes Rectores de Uso y Gestión.

Artículo 6. Condiciones específicas para el aprovechamiento de hongos.

1.- Para la localización de las setas, se prohíbe remover el suelo de forma que se altere la capa vegetal, ya sea manualmente o utilizando rastrillos, hoces u otras herramientas.

2.- En la recogida no se emplearán más útiles que un cuchillo o navaja, quedando prohibido el arranque de las setas.

3.- Los ejemplares objeto de recolección deberán presentar el sombrerillo desplegado, no estando permitida la recogida de hongos en las primeras fases de su desarrollo.

4.- Se dejarán sobre el lugar sin deteriorar los ejemplares que se vean pasados, rotos o alterados o aquellos que no sean objeto de recolección.

5.- La recogida se llevará a cabo en cestas o recipientes que permitan la aireación de las setas y la caída al exterior de las esporas, quedando expresamente prohibidas las bolsas de plástico, mochilas o similares.

6.- Queda prohibido expresamente romper o deteriorar cualquier ejemplar que no sea objeto de recolección, salvo roturas puntuales de algún ejemplar, necesarias para la adecuada identificación taxonómica del mismo.

7- Se prohíbe la recogida durante la noche, desde la puesta de sol hasta su salida.

Artículo 7. Régimen sancionador.

1.- La Administración podrá efectuar inspecciones y reconocimientos, tanto durante la realización del aprovechamiento como una vez finalizado el mismo, para verificar el cumplimiento de lo dispuesto en el presente Reglamento.

2.- A las infracciones que se cometan contra lo dispuesto en este Reglamento y Ordenanzas locales subsiguientes les será de aplicación el régimen sancionador previsto en el Título VII de la Norma Foral de Montes 11/2007, de 26 de marzo.

3. La recolección o destrucción de plantas incluidas en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de Fauna y Flora Silvestre y Marina constituye una infracción contemplada en el artículo 76 de la Ley 16/94 de 20 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

Disposición final

El presente Decreto Foral que aprueba este Reglamento entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 14 de octubre de 2008.- Teniente Diputado General, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.- Diputada Foral de Agricultura, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.- Director de Agricultura, JOSÉ MARÍA GARCÍA TABERNERO.